

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2019ko otsailaren 13an egindako bilkuran erabaki du, 2019ko ekitaldian merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduetan euskaraz errotulatzeko sustatzeko diru-laguntzen deialdia egiteko.

Sestaoko Udalak Diru-laguntzak emateko udal-ordenantzak xedatutakoa betez, Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Kirol Ataleko buruaren txostena ikusirik Kontu-hartzaile andrearen aldeko txostena ikusirik eta, era berean Euskara Informazio Batzordeak, 2019ko otsailaren 6an egindako bilkuran igorritako Irispena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak,

ERABAKI DU:

Lehenengoa: Deialdi Publikoa onartzea, dokumentu erantsian garatzen dena, Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduak errotulatzeko, bai euskaraz bai EAE-ko bi hizkuntza ofizialetan, 2018ko ekitaldian eta 2019an zehar, udalerrian euskararen presentzia sustatzeko xedez.

Horrek guztiak begiratu egingo du Sestaoko Udalaren Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza, 158. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2007ko martxoaren 22koan, argitaratutakoa; eta, halaber, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren aginduak, aplikatzekoak direnean.

Bigarrena: Mila eta bostehun euroko zenbatekoa onartzea (1.500 euro), diru-laguntza publikoa emateko, Sestaoko Udalerrian Euskara garatzeko esparruan.

Hirugarrena: Entitate bakoitzari emandako kopuruaren %75a ordaintzea diru-laguntza hori emateko ebazpen-erabakia onartzen den unean.

Laugarrena: Egin daitezela behar diren izapideak erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, eta jakinarazi Udaleko Kontu-hartzaileari eta.

Sestaon, 2019ko otsailaren 13an.—Alkatea, Josu Bergara López



I. ERANSKINA
DEIALDI PUBLIKOA

Lehenengoa. — Helburua eta xedea

Diru-laguntza hauen deialdiaren helburua eta xedea saltoki, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduen errotulazioa sustatzea da, euskaraz zein EAE-ko bi hizkuntza ofizialetan 2018 eta 2019 urteetako ekitaldietan.

Sestaoko Udalaren deialdi honen ondorioetarako, errotulazioa izango da saltoki, ostalaritza zein zerbitzuen barrualdean zein kanpoaldean egiten dena eta epean eta forman aurkeztutakoa. Kanpoaldeko errotulazioak, saltokiaren eta bertan eskaintzen diren produktu-zerbitzuen definizioaz gain, toldoak, kanpoaldeko euskarriak eta merkataritza-ibilgailuak hartzen ditu barruan.

Halaber, deialdi hau baino lehenago diruz lagunduak izan diren proiektuak ez dira kontuan hartuak izango deialdi honetan.

Bigarrena. — Onuradunak

1. Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun izango dira Sestaoko udalerrian kokatuta dauden saltoki, ostalaritza eta zerbitzuen jabetza duten pertsona fisiko edo juridikoak, eta errotulazioa jarri edo jarriko dutenak 2018an eta 2019an.

Diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira entitate publikoak, banketxeak eta aurrezki-kutxak, hizkuntza normalizatzeko arloan ari direnak eta 300 metro koadrotik gorako saltokiak.

2. Sestaoko Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen udal-ordenantzak 7.d artikuluan xedatutakoarekin bat, deialdi honen babesean emandako diru-laguntzak lehia-erregimenean esleituko dira.

3. Lehia-erregimenean, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, horien artean ordena zehazteko, deialdi honen zazpigarren artikuluan aipatutako irizpideekin bat. Balorazio handiena lortu duten horiei esleituko zaizkie diru-laguntzak, baina ez da inolaz ere gaindituko deialdirako finkatutako aurrekontu-horniduraren zenbatekoa.

Hirugarrena. — Eskatzaileen baldintzak eta betebeharrak

1. Eskatzaileei dagokionean:
 - a) Diru-laguntzak lortzeko, ez duela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatzen diren debekuetatik bat ere.
 - b) Sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jasotakoa ez izatea, eta diruzko edo bestelako laguntzak jasotzeko deialdietara aurkezteko debekurik ez izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.
 - c) Aurretik Sestaoko Udalak emandako diru-laguntzak behar bezala justifikatuak izatea. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango Udalaren aurreko diru-laguntzaren bat justifikatu gabe daukan ezein pertsonari, baldin eta justifikazioa egiteko epea igaro balitz deialdiari dagozkion eskabideak aurkezteko epea amaitzean.
 - d) Egunean egotea zuzenbide publikoko zerga-betebeharrekin eta Gizarte Segurantzarekin.
 - e) Diru-laguntzak ematen dituen organoak egiten duen egiaztatze jarduerak onartzea eta baita helburu berarekin jasotako diru-laguntzen jakinarazpena egitea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua-rekin bat
2. Errotuluen ezaugarriei dagokionean:



- a) Errotuluen testuak behar bezala idatzita egon beharko dira. Horretarako, eskatzaileek Udalaren Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza izan dezakete.
- b) Errotuluan derrigorrez agertu beharko da saltokiaren jarduera. Esaterako: «Ana okindegia», «Kepa taberna».

Laugarrena. — Diru-laguntzak emateko irizpideak eta kopurua

Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartuko dira eskatzaileei fakturatutako gastuak, diruz lagunduko den deialdiaren helburua eta xedearekin lotura zuzena dutenean. Horrela bada,

1. Euskara hutsean egindako errotulazio-gastuek %75eko diru-laguntza izango dute, errotuluko 600 euroko mugarekin.
2. EAE-ko bi hizkuntza ofizialetan idatzitako errotulazio-gastuek %60ko diru-laguntza izango dute, errotuluko 400 euroko mugarekin.

Diruz lagundutako programa honen barruan, gehienez ere 800 euroko diru-laguntza emango da eskatzaileko.

Diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du —dela bakarrean, edo dela bat eginik bestelako Administrazio edo Erakunde publiko nahiz pribatuek ematen dituzten diru-laguntzein, laguntzekin edo diru-sarrerekin batera, inola ere gainditu erakunde onuradunak egin behar duen jardueraren kostua. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertu ondoren, diru-sarrerak handiagoak balira gastuak baino, Sestaoko Udalaren diru-laguntzari kenduko zaio diru-sarreretan izandako soberakinaren zenbatekoa.

Hala eta guztiz ere, baldin ez balego aurrekontu nahikorik ematekoak diren diru-laguntzen guztizko zenbatekoa estaltzeko, diru-laguntza guztiak ehuneko berean murriztuko dira, harik eta dagoen aurrekontu-esleipena nahikoa izan arte guztizko zenbatekoa estaltzeko.

Bosgarrena. — Dokumentazioa

1. Diru-laguntza jasotzeko eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira deialdi honen I. Eranskineko eskabide-eredu ofizialean. Deialdia interesatuei entregatuko zaie Sestaoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Kirolak Saileko bulegoetan (Sestaoko Las Llanas Zumarkaleko 4. zenbakian, Castaños eraikineko bigarren solairuan).

Era berean, Sestaoko Udaleko (www.sestao.eus) web orritik habilitatuko da deskarga.

2. Eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 - a) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fitxaren kopia; diru-laguntzaren eskabidea izenpetzen duen pertsona fisikoaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia; diru-laguntza xede duen saltokiaren legezko ordezkari duela egiaztagiriaren kopia; saltokiaren jarduera lizentziaren kopia.
 - b) Hartzekodunaren fitxa, behar bezala beteta, dagokion diru-laguntza ordaintzeko (deialdi honen III. Eranskinean zehaztutako ereduarekin bat). Bakarrik diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen bada edo aurreko diru-laguntzen eskaerak aldaketak badaude osatuko da.
 - c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiriak, bai eta eskatzaileak —izan pertsona fisikoa nahiz juridikoa— helbide fiskala duen Lurralde Historikoko Foru Ogasunarenak ere, non adierazten den eskatzaileak egunean dauzkala erakunde horiekin dituen betebeharrak. Aipatutako ziurtagiriaren data deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta gerokoa izan beharko du.
 - d) Deklarazio bat non adierazten duen ez duela, izaera bereko beste laguntza —diruzko nahiz bestelako— batzuen testuinguruan, dirua itzultzeko inolako prozeduraren edo zigorren pean (deialdi honen II. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).
 - e) Deklarazio bat non adierazten duen ez duela diru-laguntzak lortzeko debekurik jaso diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. arti-



kuluan xedatutakoaren arabera (deialdi honen II. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).

- f) Deklarazio bat non adierazten duen ez duela jaso zigor administratibo edo penalik sexu-bereizkeria egiteagatik, ez eta debekurik ere diruzko edo bestelako laguntzak jasotzeko deialdietara aurkezteko, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, dela medio (deialdi honen II. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat).

3. Sestaoko Udalak dagoeneko jaso badu baldintza honen 2. puntuko a) atalean aipatutako dokumentuetarik bat, eta hura aurkeztu zen unetik bost urte baino gehiago igaro ez badira edo aldaketarik egin ez bada, eskatzaileak ez du berriz aurkeztu beharko. Hala eta guztiz ere, halakoetan, eskatzaileak berariaz adierazi beharko du dokumentuen aurkezte-data eta zein prozeduratarako aurkeztu ziren, eta aldaketarik ez dutela izan aditzera eman.

Seigarrena.— Eskaerak eta epeak

1. Eskaerak, eskatutako dokumentazioarekin batera, Sestaoko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Udaletxean (Kasko Plaza, z/g, Sestao) asteleheneetik larunbatera, 9:00ak eta 14:00ak artean.

2. Eskatzaileak eskabidea izenpetuko du.

3. Eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»aren laburpenean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

4. Epez kanpo aurkezten diren eskabideak ez dira onartuko, eta izapideak bertan amaituko dira. Hala adieraziko da deialdi honi dagozkion diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

5. Eskaerak aurkeztean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honetan eta Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko Araudian adierazten diren baldintzak.

6. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo ez badaukarte nahitaezkoa den dokumentazioa, eskatzaileari eskatuko zaio hamar laneguneko epean okerra zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala ez egitera, eskaerari uko egin diola ulertuko dela. Uko-egite hori berariaz adieraziko da deialdi honi dagozkion diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

Zortzigarrena.— Izapideak, ebazpena eta errekurtsioak

1. Sestaoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Kirolak Ataleko Burutzak izapidetuko ditu eskabideak.

2. Eskaerak jasotzen direnean, aipatu Buruzagitzak pertsona eskatzaileek deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dutela egiaztatuko du. Baldin gertatuko balitz Udal Ordenantzak, Sestaoko Udalaren diru-laguntzak arautzen dituenak, 8. artikuluko 6. ataletan aurreikusitako kasuetarik bat, eskatzaileari eskatuko zaio hamar laneguneko epean okerra zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala ez egitera, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

Era berean, aurkeztutako jarduerak eta proiektuak behar bezala baloratzeko, Burutzak egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahalko dizkie eskatzaileei, baldintzak hobe ezagutzeko helburuarekin.

Udaleko Euskara Teknikariak, adierazitako jardunbideak amaituta, horren gaineko ebaluazioaren txostena egingo du.

Ondoren, Ataleko Burutzak ebazpen-proposamena duen txosten bat egingo du, Sestaoko udalerrian 2019 urteko ekitaldian saltokiak, ostalaritza eta zerbitzuak euskaraz errotulatzeari sustatzeko diruz lagundutako programari, diru-laguntza horien xede diren jarduera edo proiektuei, eskatzaileek eta jarduerak diru-laguntza izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten adierazita, eta hala badagokio, Deialdiaren Oinarrien eta Ordenantzaren arabera emango zaien diru-laguntzari buruzkoa.



3. Behin-behineko ebazpen-proposamena egiten ondoren, Euskara arloko Informazio Batzordeak behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio organo emaileari; baliteke proposamena Ataleko Burutzak egindako txostenarekin bat etortzea edo ez; nolana ere, proposamenak arrazoituta egon beharko du, eta bat etorri deialdian zehaztutako baldintza eta irizpideekin.

4. Tokiko Gobernu Batzordeak, behin ikusirik aipatu organo kolegiatuak egindako behin betiko ebazpen-proposamena, prozedura ebatziko du, dela behin betiko ebazpen-proposamenarekin bat eginez, dela hartatik aldenduz. Nolanahi ere, bigarren kasuan, arrazoiak eman beharko ditu, eta ebazpena justifikatu, beti ere aplikatuz deialdi honetan eta Sestaoko Udalaren diru-laguntzak arautzeko Udal Ordenantzan xedatutako irizpideak.

Prozeduraren ebazpenean, eskatzaile bakoitzari emandako diru-laguntza adieraziko da, eta zein baldintzatan emango zaion (hala nola diruz lagundutako objektua, diru-laguntzaren ehunekoak eta gehieneko zenbatekoak, jarduerak gauzatzeko epea, gauzatzeko justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab.) Halaber, onartu ez diren eskabideak azalduko dira, eta uko egin zaienak, horretarako arrazoiekin.

5. Diru-laguntzak gaitzetsi egingo dira, pertsonak edo erakunde eskatzaileak, ala diru-laguntza eskatzen den proiektuak, deialdian xedatutako baldintzak betetzen ez dituenan.

6. Diru-laguntzak eman edo gaitzesten dituen ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta kontra jar daitezkeen errekurtsoak adieraziko dira.

Ebazpen hori Sestaoko Udaleko iragarki-taulan egongo da ikusgai hilabetez, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» behin argitaratuta deialdiaren diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenari dagokion laburpena eta ebazpena ikusgai jarriko den tokia. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak 18.3. artikuluan aipatutako kasuetan, ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta Udaleko iragarki-taulan ikusgai jarriko den informazioan errespetatu egingo da maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubi-dearen Babes Zibilar buruzkoa, xedatutakoa.

7. Ulertuko da onuradunek eman zaizkien diru-laguntzak onartu dituztela non eta, hamar lanegunetako epean —diru-laguntzak eman zaizkiela adierazten duen erabakia jaso eta hurrengo egunetik hasita—, Sestaoko Udalar ez dioten idatziz komunikatzen diru-laguntzari uko egin diotela.

Bederatzigarrena. — *Pertsona onuradunen betebeharrak*

1. Diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:
 - a) Deialdi honetako arauak zehatz-mehatz betetzea, bai eta diru-laguntzak ematen dituen udal-ebazpenean xedatutako diren gainerako baldintzak ere.
 - b) Diru-laguntza zertarako eman den, horretara bideratzea.
 - c) Sestaoko Udalar jakinaraztea beste edozein erakunde publiko edo pribatuko emandako diru-laguntzak edo laguntza ekonomikoak lortuz gero, baldin Sestaoko Udalak diruz lagundutako jarduera berdina egiteko badira. Diruzko edo beste-lako laguntza eskuratu bezain laster, horren berri emango da; jakinarazpenean, adieraziko dira entitate emailea eta jasoko den zenbatekoa.
 - d) Diru-laguntzen onuradunek, diru-laguntza helburu duten errotulazioak egingo ez balituzte, Udal Diruzaintzan sartu beharko dute jaso duten diru-laguntzaren zenbatekoa, errotulazioa egitea programatuta zegoen egunetik hilabeteko epean.

Era berean, diru-laguntzen onuradunek, baldin eta, behin diruz lagundutako errotulazioa burututa, egindako gastua txikiagoa bada diru-laguntzan jasotako zenbatekoa baino, Udal Diruzaintzan sartu beharko dute diruz lagundutako gastuari aplikatu ez zaion zenbatekoa, jarduera amaitu eta hilabeteko epean.

Hori guztia diruz lagundutako gastuak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epe orokorra gorabehera.

**Hamargarrena. — Justifikazioa**

1. Behin diru-laguntzari lotutako proiektua amaitzen denean, onuradunak dokumentu-justifikazioa aurkeztu beharko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko.
2. Hau da justifikazio gisa aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - a) Horretarako faktura originala: Onuradunak berekin gorde beharko balitu aurkezteko dituen jatorrizko justifikazio-dokumentuak, horren arrazoia idatziz adieraziko du dokumentuak, fotokopiekin batera, aurkeztean. Udal-zerbitzuek dokumentuok erkatu ondoren, jatorrizkoak zigilatuko ditu Sestaoko Udalak, eta jasota utziko da gastu horiek Udal honek diruz lagundu dituela. Ondoren, onuradunari itzuliko zaizkio.
 - b) Sestaoko Udalak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango die interesatuei, eskabidean adierazitakoa egia dela egiaztatuta gera dadin.
 - c) Jarduerak, Sestaoko Udalaren diru-laguntzekin ez ezik, beste diru-laguntza batzuekin ere finantzatu direnean, justifikazioan zehatz-mehatz adierazi beharko dira zenbatekoa, jatorria, eta funts horiek nola erabili diren diruz lagundutako jardueran.
3. Frogagiriak, ezinbestean, bat etorri beharko dute helburuak eta jarduerak gauzatzeko egin diren gastuekin, beti ere diru-laguntzaren eskaeran zehaztutakoari jarraiki. Ez dira justifikazio gisa onartuko bestelako xedeak gauzatzeko egin diren gastuak.
4. Gastuen egiaztagiriak justifikazio gisa onartuak izateko, eraman beharko dute diru-laguntza eman den denboraldiko data, hau da, 2018 edo 2019ko urteetakoa.
5. Diru-laguntzak ematea ezartzen duen ebazpenean zehaztuko da zein epetan justifikatu beharko den diru-laguntzari eman zaion erabilera. Guztiarekin, epea ez da inoiz hilabetetik gorakoa izango, 2019. ekitaldia amaitzen den unetik hasita, Udal Ordenezaren 11. 6. artikuluan xedatutakoa betez.

Baldin erabakitzen bada aurkeztutako justifikazioa ez dela nahikoa, 10 eguneko epea emango da antzemandako akatsak zuzentzeko.

Eskatutako zuzenketa egiten ez bada, diru-laguntzaren zenbatekoa egokitu egingo da behar bezala justifikatutako kopurura; ondorioz, kasuan-kasuan, diru-laguntzaren zati bat ordaindu edo itzuli beharko da.

Hamaikagarrena. — Beste baldintza batzuk

- *Lehena*: Diru-laguntzen ordainketa, itzulketa, zehapen-araubidea eta deialdi honetan aurreikusi ez diren beste ezein alderdi direla eta, aplikagarria izango da diru-laguntzak izapidetu eta emateko prozedura arautzen duen Sestaoko Udalaren udal-araudiak xedatutakoa, eta, halaber, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren arabera aplikatzekoak diren aginduak.
- *Bigarrena*: 2018ko ekitaldian zehar, saltokietan euskaraz errotulatzeko sustatzeko diru-laguntzak, «Merkataritzarako diru-laguntzak» bezala izendatutakoak programa honen kontura izango dira: 3350. Programa, 47104. Azpi-kontzeptua. Diru-laguntzaren diru-kopurua mila eta bostehun eurokoa izango da. (1.500,00 euro).
- *Hirugarrena*: Deialdi honek hizpide dituen diru-laguntzak ematea baldintza eten-garriean geratzen da; hala, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da kreditu horretatik eratorritako betebeharrak dagokion ekitaldian finantzatzeko.



I. DOKUMENTU ERANTSIA

SESTAOKO UDALARI MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUETAN EUSKARAZ ERROTULATZEA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA

(2019ko deialdia)

1. Euskaraz errotulatzea sustatzeko diru-laguntza eskabidea aurkezten duen pertsona edo entitatearen datuak

- 1.1. Izena eta Deiturak:
- 1.2. NAN / IFK:
- 1.2. Helbidea:.....
- 1.3. Telefonoa:.....

2. Errotulazio jardunbideen aurrekontua

2.1. Saltokiaren barrualdeko errotulazioa:

Izena	Kopurua	Aurrekontua

2.2. Saltokiaren kanpoaldeko errotulazioa:

Izena	Kopurua	Aurrekontua

3. Eskabide honekin aurkezten den dokumentazioa

(Zerrendatu eta erantsi diru-laguntza hauen deialdiaren seigarren baldintzan eskatutako dokumentazio guztia. Baldin eta eskatutako dokumentuetarik bat dagoeneko entregatu bazaio Sestaoko Udalari, eta hura aurkeztu zen unetik ez badira igaro bost urte baino gehiago, edo ez bada aldaketarik egin, eskatzaileak ez du berriro aurkeztu beharko. Hala eta guztiz ere, halakoetan, eskatzaileak berariaz adierazi beharko du dokumentuen aurkezte-data eta zein prozeduratarako aurkeztu ziren, eta aldaketarik ez dutela izan aditzera eman).

.....n,koaren(e)an.
Izp. jauna/andrea



II. DOKUMENTU ERANTSIA

**ESKATZAILEAK DIRU-LAGUNTZA LORTZEKO DEBEKURIK
EZ DUELA ADIERAZTEKO DEKLARAZIOAREN EREDUA**

Nik, jaunak/andreak,
..... NAN zenbakia daukadan honek (saltoki, ostalaritza eta zerbitzuetako establezi-
menduen errotulazioa sustatzea diru-laguntzak eskatzeko Sestaoko Udalaren aurrean aurkeztu dudak
dokumentazioak egiaztatzen duenez),

ADIERAZTEN DUT:

Ezen, une honetan, ez dagoela pertsonarik ezta familia-unitateko ezein kiderik, Sestaoko Uda-
laren aurrean eskatzen ari den laguntzaren izaera bereko beste laguntza —diruzko nahiz bestela-
ko— batzuen testuinguruan, dirua itzultzeko inolako prozeduraren edo zigorren pean; diru-laguntzak
lortzeko, ez duela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan
xedatzen diren debekuetatik bat ere; ez duela jaso zigor administratibo edo penalik sexu-bereizkeria
egiteagatik, ez eta debekurik ere diruzko edo bestelako laguntzak jasotzeko deialdietara aurkezteko,
otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, dela medio; eta ez
duela inolako irabazi-asmorik Sestaoko Udalari eskatzen dion diru-laguntzarekin lotutako jarduera edo
proiektua gauzatzeko orduan.

.....n,koaren(e)an.

Izp. jauna/andrea



III. DOKUMENTU ERANTSIA
HARTZEKODUNAREN FITXA-EREDUA

1. Eskatzaileak bete beharreko datuak

- a) Titularraren izena:
- b) NAN:
- c) Helbidea:
- d) Udalerria:
- e) Posta-kodea:
- f) Posta elektronikoa:
- g) Telefonoa:
- Tokia eta izenpetze-eguna:

Izp.:

2. Bankuak bete beharreko datuak

Egiaztatzen dugu goian aipatutako pertsona kontu honen titularra dela:

- Bankua:
- Agentzia:
- BIC kodea:
- IBAN:
- Herria:
- Posta kodea:
- Tokia eta izenpetze-eguna:

Bankuaren sinadura eta zigilua